IRUNGO EMAKUMEEN ETXEAREN FUNTZIONAMENDURAKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA

-KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA-
- Prozedura Irekia -

CONTRATACIÓN DE SERVICIOS PARA EL FUNCIONAMIENTO DE IRUNGO EMAKUMEEN ETXEA - CASA DE LAS MUJERES DE IRUN

- PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES -
- Procedimiento Abierto -

ARLO SUSTATZAILEA/ ÁREA PROMOTORA: GIZARTE ONGIZATEA / BIENESTAR SOCIAL.
ESPEDIENTE KODEA/ CÓDIGO EXPEDIENTE: 2024ZAUN0050

1.- KONTRATUAREN XEDEA:
IRUNGO EMAKUMEEN ETXEAREN FUNTZIONAMENDURAKO ZERBITZUAK.

CPV Kodea: 85312300

2.- ESLEIPEN PROZEDURA:
Prozedura Irekia

3.- ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ERA:
Tramitazio Arrunta

Lizitazio elektronikoa

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, LIZITAZIO MOTA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA:

4.1.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA
Modu orientagarrian eta muga gisa, SPKLak 309.1 artikuluko 2. paragrafoak ezarritakoaren kalterik gabe, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa da:

Guztira: 125.889,26 euro, 114.444,78 euro + 11.444,48 euro (10%-ko B.E.Z) banakatuta.

4.2 LIZITAZIO MOTA

1.- OBJETO DEL CONTRATO:
SERVICIOS PARA EL FUNCIONAMIENTO DE IRUNGO EMAKUMEEN ETXEA - CASA DE LAS MUJERES DE IRUN.

Código CPV: 85312300

2.- PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN:
Procedimiento Abierto

3.-TRAMITACIÓN DEL EXPEDIENTE:
Tramitación Ordinaria

Licitación electrónica

4.- PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN, TIPO DE LICITACIÓN Y VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO:

4.1.- PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN

Con carácter orientativo y máximo, sin perjuicio de lo establecido en el art. 309.1 párrafo 2º de la LCSP, el presupuesto base de licitación asciende a la cantidad de:

Total: 125.889,26 euros, desglosado en 114.444,78 euros + 11.444,48 euros (I.V.A. del 10%).

4.2.- TIPO DE LICITACIÓN

Honako lizitazio mota ezartzen da:
Orduko prezioa: 32,13 euro / orduko, honela banakatuta:

- Orduko prezioa: 29,21 euro
- BEZa (%10): 2,92 euro

Se establece el siguiente tipo de licitación:
Precio/hora: 32,13 euros / hora, desglosado en:

- Precio/hora: 29,21 euros
- IVA (10%): 2,92 euros

Enpresa lizitatzaileek kopuru horretatik beherako eskaintza eginez hobetu ahal izango dute, zenbateko zehatz eta finkoa proposatuz.

Las empresas licitadoras podrán mejorar a la baja en sus ofertas, consignando una cantidad concreta y determinada.

SPKLeko 100.2 artikuluan xedatutakoa jarraiki, lizitaziorako oinarrizko aurrekontuaren banakapena honako hau da:

A los efectos de lo establecido en el art. 100.2 de la LCSP, el desglose del presupuesto base de licitación es el siguiente:

Kostu mota /*Tipo de coste*	**Zenbatekoa kostu motaren arabera / *Importe por tipo de coste***
Kostu zuzenak / *Costes directos*	51.098,91 €
-Lansariak/ *Salarios*	48.697,16 €
-Absentismoa/ *Absentismo*	2.401,74 €
Zeharkako kostuak / *Costes indirectos*	3.065,93 €
Industria etekina / *Beneficio industrial*	3.065,93 €
Urteko kostua (teorikoa) / Coste anual (teórico)	57.230,78 €
Urteko orduak / Horas anuales	**1.959**
Orduko kostua / Coste hora	**29,21 €**
Urteko kostua (erreala) / Coste anual (real)	**57.222,39 €***
Hasierako iraupenaren aurrekontua BEZ gabe / Presupuesto duración inicial sin IVA	**114.444,78 €**
BEZ / *IVA*	11.444,48 €
Hasierako iraupena guztira / *Total duración inicial*	**125.889,26 €**

Lan kostuen kalkulurako IV. Gipuzkoako Eskuhartze Sozialeko Hitzarmen Kolektiboa 2023-2025 kontuan hartu da.

Para el cálculo de los costes laborales se ha utilizado como referencia el IV. Convenio Colectivo de Intervención Social de Gipuzkoa 2023-2025.

**Urteko kostu teorikoaren eta errealaren arteko aldea orduko kostuaren biribilketa da.*

** La diferenencia entre el coste anual teorico y real es el redondedo del coste/hora.*

4.3.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA: **137.333,74 € euro, BEZ gabe**.

4.3.-VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO: **137.333,74 € euros, IVA no incluido**.

Honako kopuru hauetan banatuak:

Desglosado en los siguientes conceptos:

- Hasierako iraupena: 114.444,78 €
- Aurreikusitako luzapenak: Ez dira aurreikusten
- Kontratu aldaketak: 22.888,96 €

- Duración inicial: 114.444,78 €
- Prórrogas previstas: No se prevén
- Posibles modificaciones: 22.888,96 €

5.- KONTRATUAREN IRAUPENA: **2 urte.**

6.- LUZAPENAK:
Ez da aurreikusten.
7.- PRESTAZIOA EGITEKO EPEA: **Kontratua formalizatzen den hurrengo egunetik.**

8.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA: **Ez da eskatzen.**

9.- BEHIN BETIKO BERMEA: **oinarrizko lizitazio-aurrekontuaren %5ari dagokiona, BEZ kenduta.**

10.- ESPEDIENTEA IKUSGAI JARTZEA:
GIZARTE ONGIZATEko udal bulegoetan eta Irungo Udalaren web orrian (www.irun.org).

11.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:
15 egun naturaleko epean lizitazio-iragarkia Irungo Udaleko Kontratugile Profilean (www.irun.org) argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epea 14:00etan amaituko da.

12.- ALDAERAK
Ez dira onartzen.

13.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK:

I. BALIO-JUDIZIOARI LOTUTAKO IRIZPIDEAK (Gehi. 49 puntu):

- **A) Proposamen teknikoaren kalitatea: 49 puntu gehienez.**
  - **A1. Proiektua Irunera egokitzea: 25 puntu.**
  - **A2. Zerbitzuaren garapena: 24 puntu.**

II. IRIZPIDE AUTOMATIKOAK (Gehi. 51 puntu):

- **A) Prezioa: 47 puntu gehienez.**
- **B) Berdintasunaren arloko prestakuntza (gutxienezko 50 orduak hobetzen dituenak): 4 puntu, gehienez.**

5.- DURACIÓN DEL CONTRATO: **2 años.**

6.- PRÓRROGAS:
No se prevén.
7.- PLAZO DE EJECUCIÓN: **Desde el día siguiente a la formalización del contrato.**

8.- GARANTÍA PROVISIONAL: **No se exige.**

9.- GARANTÍA DEFINITIVA: **5% del presupuesto base de licitación, excluido el IVA.**

10.- EXPOSICIÓN DEL EXPEDIENTE:
Dependencias municipales del BIENESTAR SOCIAL y página web del Ayuntamiento de Irun (www.irun.org).

11.- PLAZO DE PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES: **15 días naturales desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el Perfil de Contratante del Ayuntamiento de Irun (www.irun.org).**

El plazo finalizará a las 14:00 horas.

12.-VARIANTES
No se admiten.

13.- CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN:

I. CRITERIOS SUJETOS A JUICIO DE VALOR (Max. 49 puntos):

- **A) Calidad de la propuesta técnica: Max. 49 puntos.**
  - **A1. Adecuación del proyecto a Irun: 25 puntos.**
  - **A2. Desarrollo del servicio: 24 puntos.**

II. CRITERIOS AUTOMÁTICOS (Max. 51 puntos):

- **A) Precio: Max. 47 puntos.**
- **B) Formación en materia de igualdad (que mejora el mínimo de 50 horas): hasta 4 puntos.**

KLAUSULAK

1.- ARAUBIDE JURIDIKOA.

1.- Kontratu hau zerbitzuak emateko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duen, azaroak 8ko 9/2017 Legearen 17. artikuluak aurreikusitakoaren arabera. Administrazio-kontratua izango da, eta herri-administrazioek kontratazioetarako erabiltzen dituzten printzipio komunen arabera arautuko da, eta beti ere kontratazioa publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako printzipio komunen arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

1.- Klausula Administratibo Berezien Plegu hau eta Preskripzio Teknikoen Plegua.

2.- Lizitazioa eta kontratua egiterakoan eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Herri Administrazioetako Kontratuetako legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.

Zehazki, honako arau hauek aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Errege Lege Dekretua, apirilaren 18koa, toki-araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testua bategina onesten duena; azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duena (aurrerantzean, SPKL); eta honako hau izango da arauzko xedapena: 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, SPKL partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, herri-administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua onesten duena, aurrekoei kontra egiten ez dien neurrian.

3.- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

2.- Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa erabiliko dira, kontratua interpretatu, bete edo iraungitzerako garaian eta kontratua indarrean dagoen bitartean zalantzak sortu eta zalantza horiek aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen bidez argitu ezin

CLÁUSULAS

1ª.- RÉGIMEN JURÍDICO.

1.- El presente contrato, considerado como de servicios, según lo dispuesto en el artículo 17 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, por la que se aprueba la Ley de Contratos del Sector Público, tendrá carácter administrativo y se regirá por los principios comunes a la contratación de las Administraciones Públicas y, en cualquier caso, por los del Derecho de las Comunidades Europeas relativos a la contratación pública.

Conforme a lo establecido en el párrafo anterior, el contrato se regirá:

1º.- Por el presente Pliego de Clausulas Administrativas Particulares y el Pliego de Prescripciones Técnicas.

2º.- Por las normas sobre contratación contenidas en las disposiciones legales y reglamentarias, de Régimen Local y de Contratos de las Administraciones Públicas vigentes al celebrarse la licitación y el contrato, y durante el desarrollo de ambos.

En particular serán de aplicación la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, el R.D. Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Vigentes en Materia de Régimen Local, la Ley 9/2017, de 8 de noviembre por la que se aprueba la Ley de Contratos del Sector Público (en adelante, LCSP) y, como disposiciones reglamentarias, el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, de desarrollo parcial de la LCSP y el R.D. 1098/2001, de 12 de octubre, por la que se aprobaba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, vigente en lo que no se oponga a las anteriores.

3º.- Por las demás normas de Derecho Administrativo.

2.- Las normas de Derecho Privado serán aplicables como Derecho supletorio para resolver las cuestiones a que puedan dar lugar la interpretación, efectos, cumplimiento y extinción del contrato, que no puedan ser deducidas por las disposiciones citadas en el

direnean. Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko, kontuan hartu beharko dira administrazioaren eskumenak.

3.- Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, plegu honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako gainerako aukerako baldintzen gainetik egongo dira.

párrafo anterior; en todo caso, la aplicación de las normas de Derecho Privado no podrá hacerse con olvido de las prerrogativas de la Administración.

3.- Salvo en las materias estrictamente técnicas, el presente pliego prevalecerá en todas sus disposiciones sobre el resto de las condiciones facultativas en su caso unidas al expediente.

2.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.- Kontratu honen xedea da IRUNGO EMAKUMEEN ETXEAREN FUNTZIONAMENDURAKO ZERBITZUAK ematea, aurrekontuaren eta preskripzio teknikoen pleguan ezarritako baldintza teknikoen arabera.

CPV Kodea: 85312300

2.- Kontratuaren xedeak lote bakarra du.

3.- Ez da onartuko eskaintza alternatiboen proposamenik.

4.- Lanen aurkezpena preskripzio teknikoen pleguan xedatutakoaren arabera egin beharko da.

2ª.- OBJETO DEL CONTRATO.

1.- El objeto del presente contrato es la realización de los SERVICIOS PARA EL FUNCIONAMIENTO DE IRUNGO EMAKUMEEN ETXEA - CASA DE LAS MUJERES DE IRUN, con arreglo al presupuesto y a las condiciones técnicas establecidas en el pliego de prescripciones técnicas.

Código CPV: 85312300

2.- El objeto de este contrato viene configurado como un único lote.

3.- No se admitirá la propuesta de ofertas alternativas.

4.- La presentación de los trabajos deberá ceñirse a lo dispuesto en el pliego de prescripciones técnicas.

3.- KONTRATUAREN IRAUPENA ETA KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA.

1.- Kontratuaren iraupena karatularen 5. paragrafoan agertzen dena da.

Epe hau luzatu ahal izango da karatularen 6. paragrafoan hala zehazten bada SPKLen 29. artikuluan ezarritako egoera eta eskakizunen arabera.

Luzapena Kontratazio organoak erabakiko du eta kontratugilearentzat nahitanahiezkoa izango da, beti ere kontratuaren iraupen epea bukatu baina bi hilabete lehenagotik adierazten bada.

Nolanahi ere, luzapena berariaz onartu behar da.

2.- Plegu honetan aipatzen diren lanak gauzatzeko epea 2 urte izango da, kontratua sinatzen den hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

3ª.- DURACIÓN DEL CONTRATO Y PLAZO DE EJECUCION DE LA PRESTACIÓN.

1.- La duración del contrato será la fijada en el apartado 5 de la carátula.

Este plazo contractual será prorrogable si así se establece en el apartado 6 de la carátula de conformidad con las circunstancias y requisitos establecidos en el artículo 29 de la LCSP.

La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para el contratista, siempre que su preaviso se produzca con dos meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato.

En todo caso la prórroga deberá ser aprobada de forma expresa.

2.- El plazo de ejecución de los trabajos a que se refiere el presente pliego será de 2 años contados desde el día siguiente a la firma del contrato.

4.- AURREKONTU-LIZITAZIO MOTA.

Kontratuaren gehienezko aurrekontu zenbatetsia eta lizitazio-mota karatulako 4. atalean ezarritakoak dira. Lizitatzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz.

Gehienezko aurrekontuaren zenbateko hau orientagarria da, SPKLaren 309.1 artikuluko 2. paragrafoak ezarritakoaren kalterik gabe, eta aldatu egin daiteke esleipenaren prezioaren eta betetzen gauzatutako unitateen arabera.

Lizitatzaileek egiten dituzten proposamenetan, ulertuko da ondorio guztietarako sartuta daudela kontrata-prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere. Hala ere, Balio Erantsiaren Gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

4ª.- PRESUPUESTO-TIPO DE LICITACIÓN.

El presupuesto base de licitación y el tipo de la licitación son los que se establecen en el apartado nº 4 de la carátula, cantidades que los licitadores podrán mejorar a la baja en sus ofertas, consignando una cantidad concreta y determinada.

Este presupuesto máximo tiene carácter orientativo, sin perjuicio de lo establecido en el art. 309.1 párrafo 2º de la LCSP, pudiendo variar en función del precio de adjudicación y de las unidades efectivamente ejecutadas.

En las propuestas que formulen los licitadores se entenderán incluidos, a todos los efectos, no sólo los precios de la contrata, sino también las cuotas correspondientes a los tributos de toda índole que graven a los diversos conceptos. El Impuesto sobre el Valor Añadido, no obstante, deberá figurar de manera desglosada en las ofertas, indicando tipo e importe aplicable al contrato conforme a su normativa reguladora.

5.- FINANTZAKETA.

Kontratu honetarako badago finantziazioa aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura.

Aurtengo ekitaldian, honako kontularitza dokumentu honen kargura: A-2302-2024, 1 0410.227.12.231.51 Laguntza-kontratuak. Emakumeen Etxea aurrekontu aplikaziokoa.

Bestalde, eragindako aurrekontuetan behar adina kreditu jartzeko konpromisoa hartu du eskumena duen organoak.

5ª.- FINANCIACIÓN.

Existe financiación para el presente contrato con cargo al presupuesto del año en curso.

En este ejercicio, con cargo al documento contable A-2302-2024, aplicación presupuestaria 1 0410.227.12.231.51 Contratos de Asistencia. Casa de las Mujeres del año en curso.

Asimismo, el órgano competente se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos que resulten afectados.

6.- ORDAINTZEKO MODUA.

Kontratuaren prezioa hilabetero ordainduko da. Aurretik, enpresa esleipendunak dagokion faktura aurkeztu beharko du, eta indarrean dauden xedapenetan ezarritako izapideak beteta eduki.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, faktura elektronikoa emateko derrigortuta dauden entitateek fakturak Irungo Udalari formatu elektronikoan bidali beharko dizkiote Gipuzkoako Foru Aldundiaren Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bidez,

6ª.- FORMA DE PAGO.

El precio del contrato se abonará mensualmente**,** previa presentación por la empresa adjudicataria de la factura correspondiente y el cumplimiento de los trámites establecidos en las disposiciones vigentes.

Las entidades obligadas a la emisión de factura electrónica conforme a lo dispuesto en la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, deberán remitir sus facturas al Ayuntamiento de Irun en formato electrónico a través del Punto General de Entrada de Facturas Electrónicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua),

(https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua), Irungo Udala atxikia baitago, horretarako Irungo Udalaren DIR3 kodeak erabiliz.

1. Kontabilitate Bulegoa: L01200454
2. Organo kudeatzailea: L01200454
3. Unitate izapidetzailea: L01200454

al que el Ayuntamiento de Irun está adherido, utilizando los códigos DIR3 del Ayuntamiento:

1. Oficina Contable: L01200454
2. Órgano Gestor: L01200454
3. Unidad Tramitadora: L01200454

7.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK.

1.- Prezioa kobratzeko eskubidea seigarren klausulan xedatutakoaren araberakoa izango da.

2.- Kontratistak honako betebehar berezi hauek ditu, Plegu honetan eta arau osagarrietan jasotakoez gainera:

a) Kontratuaren xedeko lanak egikarituko ditu, eta pertsonalki egingo ditu, kontratuan ezarritako klausulak eta haren oinarria den proiektua zorrotz betez, eta Udal Teknikari eskudunaren aginduetara. Era berean, ezin izango du kontratua, osorik edo neurri batean, beste pertsona baten esku utzi administrazioaren baimen espresik gabe.

b) Behin-betiko bermea zehaztutako epean jarriko du, eta bidezkoa denean, osagarria.

c) Esleipen-egintzan zehaztutako epean formalizatuko du kontratua.

d) Kontratuaren indarraldi osoan administrazio publikoekin kontratatzeko gaitasuna mantentzea bermatuko du, eta behartuta egongo da etor litezkeen ezintasun eta bateraezintasunen berri ematera hamabost eguneko epean.

e) Lizitazioaren eta kontratuaren ondorioz sortutako gastu guztiak ordainduko ditu, besteak beste: iragarkiek sortutakoak, fidantzen eraketakoak, eta, hala dagokionean, kontratua eskritura publikoan bere kopiekin formalizatzekoak.

7ª.- DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA.

1.- El derecho a la percepción del precio se ajustará a lo dispuesto en la cláusula sexta.

2.- Son especiales obligaciones del contratista, además de las contenidas en el presente pliego y en normas complementarias, las siguientes:

a) Ejecutar los trabajos objeto del contrato y llevarlos a cabo personalmente y con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en el contrato y al proyecto que sirve de base al mismo y a las órdenes del Técnico Municipal competente, no pudiendo ceder, en todo o en parte, el contrato a otra persona sin autorización expresa de la Administración.

b) Haber constituido la garantía definitiva en el plazo señalado y complementaria cuando fuese procedente.

c) Formalizar el contrato en el plazo igualmente señalado en el acto de adjudicación.

d) Garantizar el mantenimiento de su capacidad para contratar con las administraciones públicas durante toda la vigencia de este contrato, obligándose a notificar en el plazo de quince días las incapacidades o incompatibilidades que hubieran podido sobrevenir.

e) Pagar todos los gastos que se originen a consecuencia de la licitación y del contrato, entre otros, a título enunciativo, los causados por anuncios, en prensa, constitución de fianzas y, en su caso, formalización del contrato en escritura pública con sus copias.

f) Lan Legeriaren, Gizarte Segurantzaren eta Hitzarmen Kolektiboen alorrean dauden xedapen guztiak beteko ditu, eta baita 31/1995 Legean (Lan Arriskuak Prebenitzeko Legea) eta lege hori garatzen duten Errege Dekretuetan jasotako guztia (bereziki langileentzako prestakuntza-ekintzei eta babes-ekipo indibidualen hornidurari dagokienez), eta, halaber, zerga-alorreko xedapenak ere beteko ditu. Bestalde, Udal Korporazioak eta lanen Zuzendaritzak ez dute inolako erantzukizunik hartuko, xedapen horiek ez betetzeagatik etor litezkeen erantzukizunetan.

g) Kontratua exekutatzean udaleko langileek eta enpresa kontratistako langileek parte hartzen dute, beraz, enpresak udalak erabiltzen duen "KOORDINATU" plataforma erabili beharko du, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko dokumentazio-trukea errazteko (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua).

Enpresa kontratistak harremanetarako pertsona bat izendatuko du. Pertsona horrek, prestakuntza labur bat jaso ondoren, plataformara igo beharko du haren bidez eskatzen zaion dokumentazioa, eta lantokirako sarrera mugatu ahal izango zaio, dokumentazioa ez badago behar bezala jasota plataforma horretan.

h) Kontratua egikaritzerakoan, eta bermealdia bukatzen den arte, antzeman daitezkeen akatsen erantzukizuna izango du.

i) Kontratua gauzatzeko beharrezko diren jardueren ondorioz Udalari eta hirugarrenei eragindako kalteak ordaindu beharko ditu, SPKLen 196. Artikuluak ezarritakoaren arabera.

j) 2016/679/EB Erregelamendua, apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa errespetatzea, kontratu honen xede diren lanak burutzearen ondorioz esleipendunak udalaren ardura diren kutsu pertsonaleko datuak tratatzeko beharra izango badu.

f) Cumplir cuantas disposiciones se hallen vigentes en materia de Legislación Laboral, Seguridad Social, Convenios Colectivos, y todo lo comprendido en la Ley 31/1995, de Prevención de Riesgos Laborales y en los Reales Decretos que la desarrollan (especialmente en lo relativo a acciones formativas para el personal y dotación de equipos de protección individual), así como en materia tributaria, quedando la Corporación Municipal y la Dirección de los trabajos totalmente liberada de cualquiera responsabilidad que pudiera derivarse del incumplimiento de aquéllas.

g) En la ejecución del contrato concurren personal del ayuntamiento y personal de la empresa contratista, por lo que la empresa deberá utilizar la plataforma "KOORDINATU" que el ayuntamiento utiliza con el objetivo de facilitar el intercambio de documentación relativa a la Coordinación de actividades empresariales, (art.24 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de prevención de Riesgos Laborales).

La empresa contratista designará una persona de contacto, que tras recibir una breve formación, será la encargada de subir a la plataforma la documentación que a través de la misma se le solicite, pudiéndose restringir la entrada al centro de trabajo, si la documentación no consta correctamente en dicha plataforma.

h) Responsabilizarse de los defectos que en la ejecución puedan advertirse durante el desarrollo del contrato y hasta que se cumpla el plazo de garantía.

i) Indemnizar los daños y perjuicios que se causen al Ayuntamiento y a terceros como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de conformidad con lo establecido en el art. 196 de la LCSP.

j) Respetar el Reglamento 2016/679/UE, de 27 de abril sobre Protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de Derechos Digitales, en el caso de que, a consecuencia de la ejecución de los trabajos objeto del presente contrato, el adjudicatario precise tratar datos de carácter personal que sean responsabilidad del Ayuntamiento de Irun.

Horren ondorioz, esleipendunak Irungo Udalarekin Izaera Pertsonaleko Datuen Tratamendurako Hitzarmen bat sinatu beharko du kontratua egoki gauzatzeko Irungo Udalaren ardura diren ondorengo datu jakin batzuen tratamendu-eragilea izango baita:

En consecuencia, la empresa adjudicataria deberá suscribir un Convenio de Tratamiento de Datos con el Ayuntamiento de Irun ya que para la correcta ejecución del contrato, la empresa adjudicataria resultará encargada del tratamiento de una serie de datos de carácter personal de los que el Ayuntamiento de Irun es responsable.

TRATAMENDUA **TRATAMIENTO**	***XEDEA*** **FINALIDAD**	***KATEGORIA BEREZIKO DATUAK*** **DATOS DE CATEORIA ESPECIAL**	***SARTZEKO BAIMEN MAILA*** **NIVEL DE PERMISOS DE ACCESO**
EMAKUMEEN ETXEA CASA DE LAS MUJERES	*- Emakumeen Etxean eskaintzen diren zerbitzuetarako hitzorduak kudeatzea* *- Emakumeen Etxean antolatutako jarduerei dagokienez: identifikazio-datuak eta parte-hartzaileen harreman- eta jarraipen-datuak biltzea.* *- Emakumeen Etxeko liburutegiko liburuen mailegua kudeatzea.* *- Erabiltzaileen eskaerak, iradokizunak eta proposamenak udal arduradunari helaraztea.* - Gestión de citas para los diferentes servicios ofrecidos en la Casa de las Mujeres. - Respecto de las actividades organizadas en la Casa de las Mujeres: recopilación de datos identificativos y de - contacto y seguimiento de la asistencia de las personas participantes. - Gestionar el préstamo de libros de la biblioteca de la Casa de las Mujeres. - Trasladar las solicitudes, sugerencias y propuestas de las personas usuarias a la responsable municipal.	*Ez dira aurreikusten.* No se prevén.	*MANTENIMENDUA* MANTENIMIENTO

Tratamendu bakoitzari dagozkion segurtasun neurriak hartzen direla bermatu beharko du esleipendunak.

La empresa adjudicataria deberá garantizar que se adoptan las medidas de seguridad correspondientes a cada tratamiento.

Aipatutako datuen tratamenduetarako, esleipendunak datu horiek informatikoki gordeko baditu, kontratua formalizatu aurretik aurkeztu beharko du aitorpen bat adierazteko zerbitzariak non kokatuta egongo diren eta eurei lotutako zerbitzuak nondik egingo diren. Era berean, kontratuaren bizitzan zehar gertatzen den edonolako aldaketa jakinarazi beharko du.

En caso de que para los citados tratamientos de datos, la empresa adjudicataria vaya a almacenar informáticamente dichos datos, estará obligada a presentar antes de la formalización del contrato una declaración en la que ponga de manifiesto dónde van a estar ubicados los servidores y desde dónde se van a prestar los servicios asociados a los mismos, así como comunicar cualquier cambio que se produzca, a lo largo de la vida del contrato

Enpresa lizitatzaileek bere eskaintzetan adierazi beharko dute zerbitzariak edo eurei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeaaurreikusia ote duten eta lan horiek gauzatzeko eskatuko zaien azpikontratisteei buruz adierazi beharko dute bere izen edo profil profesionala, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzei erreferentzia eginez definituta.

Las empresas licitadoras deberán indicar en su oferta, si tienen previsto subcontratar los servidores o los servicios asociados a los mismos, y acerca de los subcontratistas a los que se vaya a encomendar su realización, deberán indicar el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica.

Era berean, kontratuaren esleipendunak bermatu beharko du kutsu pertsonaleko datuen tratamendua udal arduradun batek espresuki baimendutakoa izango dela erabiltzaile batentzat edo erabiltzaile-profil batentzat, eta kasu orotan, tratamenduaren arriskuarentzat aproposak diren ekintza tekniko eta antolamendukoak hartzen direla EB 2016/679 Erregelamenduaren 32 artikuluak exijitutako baldintzetan.

Igualmente, el adjudicatario del contrato deberá garantizar que el tratamiento de datos de carácter personal sea autorizado expresamente por un responsable municipal para un usuario o un perfil de usuarios y, en todo caso, se garantice que se adoptan las medidas técnicas y organizativas que resulten apropiadas para garantizar un nivel de seguridad adecuado al riesgo del tratamiento, en los términos exigidos por el artículo 32 del Reglamento (UE) 2016/679.

k) Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretuko Lehenengo Xedapen Gehigarriak xedatzen duenaren arabera, kanpoko zerbitzuak kontratatzearekin loturik Tokiko Gobernu Batzarrak 2012ko abenduaren 26an onartutako Jarraibideetan ezarritakoa betetzea. Jarraibide horiek lizitatzaileen eskura daude Udal honetako kontratatzailearen profilean (www.irun.org).

k) Cumplir con lo dispuesto en las Instrucciones en relación con la contratación de servicios externos, aprobadas por la Junta de Gobierno Local en fecha 26 de diciembre de 2012, de conformidad con lo dispuesto por la Disposición Adicional Primera del Real Decreto - Ley 20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad. Estas instrucciones se hallan a disposición de los licitadores en el perfil del contratante de este Ayuntamiento (www.irun.org).

l) Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialtasun bikoitzari buruzko xedapen guztiak betetzea, eta, bereziki, Irungo Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean horrelako kontratuetarako adierazitakoa. Araudi hori lizitatzaileen eskura dago Udal honen kontratatzaile-profilean (www.irun.org).

l) Cumplir todas las disposiciones relativas a la doble oficialidad lingüística de la Comunidad Autónoma del País Vasco y específicamente lo señalado para este tipo de contratos en el Plan de Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento de Irun. Esta normativa se halla a disposición de los licitadores en el perfil de

Kontratatzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan euskara erabiliko da normalean.

-Normalean, administrazio kontratugilearekin euskara erabiliko da kontratuak eragiten dituen harremanetan. Kontratua gauzatzeari begira, honela ulertuko da «normalean euskara erabiliko da» esaldia:

a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean.
Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen bazaio kontratua gauzatzen ari den langile bati, eta horrek hizkuntza behar bezala menderatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin izan beharreko harremanak euskaraz gauza daitezen.

b) Komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

-Kontratuak herritarrei zerbitzu eman beharra edo haiekin harremanetan jarri beharra badakar, kontratua gauzatzeko erabiltzaileekin edo pertsonekin idatziz zein ahoz egin behar diren hartu-emanetan, erabiltzaileak edo hirugarrenak hautatzen duen hizkuntza erabili behar du enpresa esleipendunak. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dizkien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.
Nolanahi ere, zerbitzuaren hartzaileek zerbitzua, informazioa eta komunikazioa uneoro euskaraz jasotzeko behar diren bitarteko materialak eta langileak jarri beharko ditu kontratistak.

contratante de este Ayuntamiento (www.irun.org). En las relaciones entre el contratante y el contratista se utilizará normalmente el euskera.

-Generalmente, con la administración contratante se usará el euskera en las relaciones generadas por el contrato. En cuanto a la ejecución del contrato, se entenderá de la siguiente manera la frase “generalmente se usará el euskera":

a) En las comunicaciones orales, las y los trabajadores que conocen el euskera hablarán en euskera, en un principio, cuando con motivo de las tareas relacionadas con la ejecución del contrato se pongan en contacto con la administración contratante. Si la administración contratante se dirige en euskera a un trabajador o una trabajadora que está ejecutando el contrato, y si esta persona no domina suficientemente el idioma, la empresa responsable de la ejecución del contrato deberá poner inmediatamente trabajadores y trabajadoras que conocen correctamente el euskera o los medios necesarios, para que las relaciones que se tengan con la administración como consecuencia del contrato sean en euskera.

b) Las comunicaciones escritas serán en euskera y en castellano, salvo en los casos en que el emisor y el receptor decidan que sean exclusivamente en euskera.

-Si el contrato conlleva la realización de un servicio para la ciudadanía o la necesidad de ponerse en contacto con los y las ciudadanas, en las relaciones tanto escritas como orales que para la ejecución del contrato se vayan a tener con las y los usuarios o con las personas, la empresa adjudicataria empleará la lengua elegida por la persona usuaria o por el tercero. Si no se ha elegido expresamente ninguna lengua, todas las notificaciones y comunicaciones que la empresa adjudicataria del contrato realice a las personas físicas o jurídicas se efectuarán en las dos lenguas oficiales, incluidas facturas y otros documentos de compraventa. De todas maneras, el o la ciudadana podrá ejercer en cualquier momento su derecho de elección de la lengua, y por lo tanto, en cualquier momento podrá solicitar que se emplee exclusivamente una de las lenguas oficiales.
De cualquier manera, el contratista deberá disponer de los medios materiales y personales necesarios para que la o el receptor del servicio

-Legea edo aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboko klausulak aplikatuz esleipendun berria kontratu amaituari atxikitako langileekin subrogatu behar bada lan-harremanei dagokienez, eta horiek ez badaukate hizkuntzagaitasunik kontratuko klausuletan hizkuntzari buruz ezarritako baldintzak betetzeko, langile horiek ordezkatu behar direnean, langile ordezkatzaileek dagokien hizkuntz gaitasuna izan beharko dute kasu guztietan.

pueda recibir en todo momento el servicio, la información o la comunicación en euskera.

-Si en aplicación de la ley o de las cláusulas del convenio colectivo a aplicar, la nueva empresa adjudicataria debe subrogar a los y las trabajadoras vinculadas al contrato finalizado en lo que respecta a la relación laboral, y si estas personas no cuentan con la competencia lingüística para cumplir con los requisitos establecidos en las cláusulas del contrato respecto a las lenguas, el personal que sustituya al personal subrogado tendrá en todos los casos la capacidad lingüística requerida.

m) Udaleko Marka Korporatiboa aplikatzea kontratatutako zerbitzuaren elementu bakoitzean eta guztietan (paperak, bulegoak, ibilgailuak, instalazioak, etab.); horretarako, aurretik, Udalaren Antolakuntza eta Kalitate Zerbitzuarekin kontsultatu beharko da.

m) Aplicar la Marca Corporativa del Ayuntamiento en todos y cada uno de los elementos (papelería, oficinas, vehículos, instalaciones, etc.) propios del servicio contratado, debiendo previamente consultar con el Servicio de Organización y Calidad del Ayuntamiento.

n) Urtero txosten bat aurkeztea kontratuaren exekuzioaren kalitate-mailei buruz.

n) Presentar anualmente un informe relativo a los niveles de calidad de la ejecución del contrato.

o) Aurreko enpresa esleipendunaren lan-kontratuetan subrogatzea, plegu honetan eta dokumentazio osagarrian ezarritako baldintzetan.

o) Subrogarse en los contratos laborales de la anterior empresa adjudicataria en las condiciones establecidas en el presente pliego y en la documentación complementaria.

8.- <u>ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK.</u>

1.- Udalari dagokio kontratuaren ikuskapena egitea bere langile teknikoen bidez. Horiek jarraibideak eman ahal izango dizkiote kontratistari, betiere lana modu eraginkorrean betetze aldera, kontratua arautzen duten klausulak oinarritzat hartuta eta alkateak dituen maila goragoko zuzendaritza- eta ikuskaritza-ahalmenen kalterik gabe.

2.- Administrazioa behartuta egongo da seigarren klausulan xedatutakoaren arabera ezarritako kopuruak ordaintzera.

8ª.- <u>DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LA ADMINISTRACIÓN.</u>

1.- La inspección del contrato corresponde al Ayuntamiento a través de su personal técnico, quien podrá dictar las instrucciones necesarias al contratista para su eficaz cumplimiento, con base en las cláusulas contractuales y sin perjuicio de las superiores facultades de dirección e inspección del Alcalde.

2.- La Administración vendrá obligada al abono de las cantidades establecidas según lo dispuesto en la cláusula sexta.

9.- <u>BERMEAK.</u>

1.- <u>Behin behineko bermea:</u>

SPKLen 106 artikuluan ezarritakoaren arabera, salbuespen izaeraz eta espedientean behar bezala arrazoituta kontratu honetarako behin behineko bermea eskatuko balitz, bere kopurua karatulako 8. Atalean ezarritakoa izango litzateke.

9ª.- <u>GARANTÍAS.</u>

1.- <u>La garantía provisional</u>

De conformidad con lo previsto en el art. 106 de LCSP, si excepcionalmente y de forma justificada en el expediente se exige para el presente contrato la constitución de una garantía provisional, su importe será el que figure en el apartado 8 de la carátula.

2.- Behin betiko bermea

SPKLen 145. artikuluak ezarritakoaren arabera eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko bermea jarri beharko du Udalaren Kutxan, oinarrizko lizitazio-aurrekontuaren %5ari dagokiona, BEZ kenduta.

Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, bermea jartzeko eskakizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Jarritako bermea itzultzeko eskatu ahal izango du esleipendunak, kontratua egikaritzen amaitutakoan eta, bere kasuan, bermealdia amaitu denean.

SPKLen 108. artikuluan baimendutako edozein modutan (esku-diruz, Zor Publikoko balioez, abalez edo kauzio aseguruz) eta indarrean dagoen legeriak araututako baldintzetan eman ahal izango dira bermeak.

10.- LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA.

Lizitazio honi dagokion iragarkia Irungo Udaleko Kontratugile Profilean (www.irun.org) argitaratuko da.

11.- PARTE HARTZEKO AHALMENA.

1.- Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa duten pertsona natural edo juridiko guztiek baldin eta SPKLen 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeko debekuen kasuren baten barnean ez badaude.

Enpresaburuek, halaber, kontratuaren objektu den jarduera edo prestazioa gauzatzeko beharrezkoa den enpresaedo lanbide-gaikuntza izan beharkodute, hala badagokio.

2.- Enpresari batzuk lizitazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Hori eskritura publikoan formalizatu beharrik ez da izango, harik eta esleipena bere alde egiten den arte. Kasu horretan, enpresariak solidarioki behartuta egongo dira Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako

2.- Garantía definitiva

El licitador que presente la mejor oferta de conformidad con lo dispuesto en el art. 145 de LCSP, deberá constituir en la Caja de la Corporación una garantía definitiva por un importe equivalente al 5% del presupuesto base de licitación, excluido el IVA.

El plazo para su constitución será de 10 días hábiles contados desde el día siguiente a aquel en que hubiese recibido el requerimiento al efecto.

El adjudicatario podrá instar la devolución de la garantía depositada una vez finalizada la ejecución del contrato y transcurrido, en su caso, el plazo de garantía.

Las garantías podrán constituirse de cualquiera de las formas admitidas en el artículo 108 de la LCSP (metálico, valores de Deuda Pública, aval o seguro de caución) y en las condiciones permitidas por la legislación vigente.

10ª.- PUBLICIDAD DE LA LICITACION.

El anuncio de la presente contratación será objeto de publicación en el Perfil de Contratante del Ayuntamiento de Irun (www.irun.org).

11ª.- CAPACIDAD PARA CONCURRIR.

1.- Podrán concurrir a esta licitación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, dispongan de solvencia económica, financiera y técnica y no estén comprendidas en ninguno de los casos de prohibición de contratar señalados en el 71 de la LCSP.

Los contratistas deberán contar asímismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de las prestaciones que constituyan el objeto del contrato.

2.- Cuando varios empresarios estén interesados en concurrir conjuntamente a la licitación podrán constituir una unión temporal al efecto, sin que sea necesaria la formalización de la misma en escritura pública hasta que se haya efectuado la adjudicación en su favor. En este caso, los empresarios quedarán obligados solidariamente ante la Administración y deberán nombrar un representante o apoderado único de la unión con poderes bastantes para ejercitar los derechos y cumplir las obligaciones que del contrato

ahalmenak izango ditu, kontratua amaitzen den arte.

3.- Eskatutako klasifikazioa, kaudimena eta kontratua exekutatzeko baldintzak:

3.1. KLASIFIKAZIOA

Kaudimena enpresa sailkapenaren bitartez ere egiaztatu ahal izango da:

* Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak edo Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak emandako sailkapen ziurtagiria, zerbitzu-kontratista gisa inskribatuta dagoela egiaztatzen duena, L taldean, 6 azpitaldean, 1. kategorian (A kategoria, 1098/2001 E.D.en arabera)

3.2.KAUDIMENA

Lizitatzaileek ondoren zehazten diren kaudimen ekonomiko eta finantzieroa eta kaudimen tekniko edo profesionaleko baldintzak eduki beharko dituzte.

Eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzaileak bere kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatu beharko du, plegu honetako 16. klausulan zehaztutako moduan:

3.2.1. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.

* Lizitatzailearen **urteko negozioen bolumena**, azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, 85.833 euro edo handiagokoa izan behar du .

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

3.2.2. KAUDIMEN TEKNIKOA

***Azkeneko hiru urteetan kontratuaren**

se deriven hasta la extinción del mismo.

3.- Clasificación, solvencia y condiciones de ejecución del contrato exigidas:

3.1. CLASIFICACIÓN

Se podrá acreditar la solvencia a través de la clasificación empresarial:

*Certificado de clasificación expedido por el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas o por el Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco acreditativo de su inscripción como contratista de servicios dentro del grupo L, subgrupo 6, categoría 1 (categoría A, según R.D. 1098/2001).

3.2. SOLVENCIA

Los licitadores deberán tener las condiciones mínimas de solvencia económica y financiera y profesional o técnica que se determinan a continuación.

El licitador que presente la mejor oferta deberá acreditar su solvencia económica, financiera y técnica conforme a lo establecido en la clausula 16 de este pliego.

3.2.1. SOLVENCIA ECONÓMICA Y FINANCIERA.

* **Volumen anual de negocios**, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles por importe igual o superior a: 85.833 euros.

El volumen anual de negocios del licitador o candidato se acreditará por medio de sus cuentas anuales aprobadas y depositadas en el Registro Mercantil, si el empresario estuviera inscrito en dicho Registro, y en caso contrario por las depositadas en el Registro Oficial en que deba estar inscrito. Los empresarios individuales no inscritos en el Registro Mercantil acreditarán su volumen anual de negocios mediante sus libros de inventarios y cuentas anuales legalizados por el Registro Mercantil.

3.2.2. SOLVENCIA TÉCNICA

***Relación de los principales servicios**

xede diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrenda, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz.

Kontratazio organoaren menpe dauden zerbitzuak eskatu ahal izango dio egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzea organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa **40.055,00 euro** kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bereko edo antzekoetan. Enpresariak gauzatutako zerbitzuen eta kontratuaren xede diren zerbitzuen arteko loturarako irizpidetzat hartuko da sailkapen azpitalde berekoak izatea, kontratua kokatuta balego arautegian ezartzen direnetako batean, eta hala ez balitz, CPV sailkapenaren barnean dagozkien kodeetan lehenengo hiru digituen artean dagoen berdintasuna.

Zerrendan adierazitako zerbitzuen artean hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan denetan egindako egikaritza egokiaren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari igorri ahal izango dizkio zerbitzuak kontratatu dituen erakundeak.

***Titulazio akademiko eta profesionalak** enpresariaren eta enpresako zuzendaritzako langileenak

Exijitutako gutxieneko teknikariak: 1, BTPn ezartzen diren tituluekin.

